

Baga edo ez ga?
JONE LASPIUR
SSIFF
SAIL OFIZIALA
PROIEKZIO BEREZIAK
ENEKO SAGARDOY
KARMELE
ASIER ALTUNA IZAren film bat
URRIAK 10 ZINEMETAN
TXINTXUA films
ESNATZENO ORDUA FILMS
rtve
eitb
BASQUE. AUDIOVISUAL
GIPUZKOA
CARAMEL

# SINOPSIA

1937. Karmele eta haren familia Frantzian erbesteratzen dira, gerraren ondorioz etxetik kanporatuak izan ondoren. Han, Karmelek erbesteko euskal enbaxada kulturalaren proposamena jasotzen du, dantza- eta musika-ikuskizunen bitartez gerraren kontra borrokatzeko. Bertan, Txomin ezagutzen du, tronpeta-jole profesional bat, eta harekin maitemintzen da. Denboraldi batean Venezuelan bizi ondoren, bikotea etxera bueltatzen da, kendu zieten guztia berreskuratzeko esperantzarekin.





# FITXA ARTISTIKOA

| | |
|---|---|
| Jone Laspiur | Karmele Urresti |
| Eneko Sagardoy | Txomin Letamendi |
| Nagore Aramburu | Karmeleren ama |
| Javier Barandiaran | Karmeleren aita |
| Kepa Errasti | Manu Sota |
| Iñigo Aranburu | Olazabal |
| Iñaki Beraetxe | Julian |
| Paul Berrondo | Jose Antonio Sangroniz |
| Xabier Elizalde | Josu Urresti |
| Asier Oruesagasti | Gardoki |





# DATU TEKNIKOAK

| | |
|---|---|
| Generoa | Drama |
| Herrialdea | Espainia |
| Ekoizpen urtea | 2025 |
| Hizkuntza | Euskara |
| Iraupena | 114 min |

Txintxua Films SLren eta Esnatzeko Ordua Films AIEren ekoizpena. Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin; EiTBren eta RTVEren partaidetzarekin.



# FITXA TEKNIKOA

| | |
|---|---|
| Gidoigilea eta zuzendaria | Asier Altuna Iza |
| Zuzendaritza laguntzailea | Antton Zabala |
| Ekoizpena | Marian Fernández Pascal |
| Argazki zuzendaria | Javier Agirre Erauso |
| Musika | Aitor Etxebarria |
| Zuzendari artistikoa | Zaloa Ziluaga |
| Muntaketa | Laurent Dufreche |
| VFX gainbegiraleak | Félix Bergés eta Ezequiel Larrú |
| FX gainbegiraleak | Jon Serrano |
| Ekoizpen zuzendaria | Ander Sistiaga |
| Soinua | Alazne Ameztoy, Xanti Salvador eta Manex Zabaleta |
| Jantziak | Nerea Torrijos |
| Makillajea | Lola López |
| Ile-apainketa | Itziar Arrieta |
| Casting zuzendaria | María Rodrigo |
| Nazioarteko salmentak | Filmax |

# ZUZENDARIAREN BIOFILMOGRAFIA

## Asier Altuna Iza

Asier Altuna Iza zinemagileak (Bergara, 1969), film laburrak egiten nabarmendu ondoren, *Aupa Etxebeste!* (2005) film luzea zuzendu zuen Telmo Esnalekin batera.

Bere ibilbidean, 8 film labur eta 6 film luze idatzi eta zuzendu ditu. *Bertsolari* (2011) eta *Amama* (2016) filmak Zinemaldiko Sail Ofizialerako aukeratu zituzten, eta *Amama*k Euskal Zinemaren Irizar Saria eta nazioarteko hainbat zinema-jaialditan 20 sari baino gehiago irabazi zituen.





# FILMOGRAFIA

**FILM LUZEAK**

- 2005 *Aupa Etxebeste!* (Telmo Esnalekin batera idatzia eta zuzendua)
- 2011 *Bertsolari* (Dokumentala)
- 2016 *Amama*
- 2019 *Agur Etxebeste!* (Telmo Esnalekin batera idatzia eta zuzendua)
- 2020 *Arzak since 1897* (Dokumentala)
- 2021 *Hondalea abismo marino* (Dokumentala)

**TELESAILAK**

- 2008-2009 *Brinkola* (13 ataleko serie originala, Telmo Esnalekin batera zuzendua)

**FILM LABURRAK**

- 1997 *Txotx* (Telmo Esnalekin batera idatzia eta zuzendua)
- 1999 *40 ezetz* (Telmo Esnalekin batera idatzia eta zuzendua)
- 2002 *Topeka*
- 2005 *Sarean*
- 2010 *Artalde*
- 2013 *Zela Trovke*
- 2014 *Soroa*
- 2016 *Iraila* (Telmo Esnalekin batera idatzia eta zuzendua)

# ZUZENDARIAREN OHARRAK

40ko hamarkadaren amaieran, agintari frankistek Ondarroako arrantzale bati ontzia konfiskatu eta itsasora irtetea debekatu zioten. Arrantzaleak, egun batean, duintasunez eta ausardiaz jokatuz, bere eskuekin egindako ontziari su ematea erabaki zuen. Kirmen Uribe idazleak bere jaioterriko gertaera hura berreskuratu zuen *Elkarrekin esnatzeko ordua* eleberrian.

Arrantzale haren alaba da *Karmele*, istorio honetako protagonista: tropa frankistek etxetik kanporatzen dute bere familiarekin batera, eta handik aurrera egoera larriei egin behar izango die aurre. Bere ideiei jarraituz, Karmele irmo borrokatuko da bere askatasunaren alde eta horren parte diren identitatearen eta mundua ulertzeko moduaren alde. Karmele emakume ausarta izan zen, gerrari eta faxismoari aurre egiteko garaian, armak beharrean, kultura eta hezkuntza erabiltzea erabaki zuena.

*Karmele* guri buruz hitz egiten duen istorio bat da: gure aiton-amonei buruz, askatasuna mantentzeko borrokatu ziren gizon-emakume haiei buruz. Haiengandik jaso dut kolektibo bezala bizirauteko beharra: komunitate bateko kide izatearen sentimendua, memoriarekiko konpromisoa, komunitate baten izaeraren aldeko borroka eta, era berean, ondare hori etorkizuneko belaunaldiei transmititzeko ardura.

Asier Altuna Iza.







## PRENTSARAKO HARREMANA

Nadia López / Ainhoa Pernaute
Cuesta de San Vicente 4
28008 Madrid
T: +34 911 922 566
M: +34 678 339 576

KARMELE filmaren webgunea


KARMELE
ASIER ALTUNA IZAren film bat